


BEGIA GEROAN

Vuela

UBIK / TABAKALERA — 2068 / 07 / 17 - 20





ETORKIZUNEN EGIA ZORO BATZUK

2068. urteak aldatuta ekarri du Lurreko bizitzara. «Jakin dugu talka egiteko arriskua dagoela, milioiren bat baino gehiagoko probabilitatearekin». Hala dio berrogeita hamar urte lehenago NASAko Propulzio Erreaktiboko Laborategiko kide David Farnocchiak eginiko txostenak. Bada, probabilitate hori bete egin da. Apirilaren 12an 99942 Apophis meteoritoa erori zen Donostian, 400 metro baino gehiagoko diametrokoa, eta egoera apokaliptikoa sortu zen. Hiriko turismoak izugarri egin du behera, nahiz eta azken urteetan telebisitariak etengabe iritsi diren. Agintariek norbanakoak monitorizatzeko eta gidatzeko sistema berriak sortu dituzte, zeinak elite alfer eta zahartua egonkortzea ahalbidetzen baitute, amenizatzaile elektronikoen multzo batek zaindua.

Zorionez, 2015eko azaroaren 20ko 1053/2015 Errege Dekretuaren bidez osatutako itsasikaretarako jarduketa-planeari ezarritako zenbait protokolo, 1755eko Lisboako hondamendia berriz gertatuko balitz ere. Hori nahikoa da herritarrek lasaitzeko, baina ez

itsasoaren maila igo dadila saihesteko. Hain zuzen, hiriko Alde Zaharra urez betetzen ari da eta "Venezia 23.0"-ren bertsio bilakatzen, Lisboarekin eta kostaldeko beste hiri-buru batzuekin gertatu bezala. Agente erraztaileek erreakzionatu dute, eta hiriko eraikinak barnealdera lekualdatu dituzte, hiriko enblema galdu ez daitezela. Edozer, zifrek behera egin baino lehen.

Begia Geroan taldeak hiriaren 2068ko trantsizio hori ikusarazteko lan bat egin du. XX. mendean nagusi zen irudien ideia iraganaren erregistro malenkoniatsu eta subjektibo gisa albo batera utziz, Begia Geroaneko kideak zenbait irudi taldean lantzen ari dira, zeinen bidez ez baita nahitaez lehenaldia erregistratzen, baizik eta baita geroa ere. Hala, bat egiten dute irudiak proiektu gisa ez beti proiektu utopikoak ulertzen saiatu ziren beste askorekin.

«ETORKIZUNAK INTERES HANDIA PIZTEN DIT; HEMENDIK URTE BATZUETARA ZER GERTATUKO DEN JAKITEA GUSTATUKO LITZAIDAKE ORAINTXE BERTAN»



Kultura herrikoia etorkizuneko irudiz josia dago. Aurreko mendearen hasieran, eldarniozko muntaketaz beteriko postalak inprimatu ziren, zeinetan hiriak etorkizuneko hiritarren bizitza konplikatzen edo dinamikoagoa bihurtzen duten tren zintzilak eta ibilgailu hegalariz beteak agertzen baitira. Arkitektoek, esaterako Mies van der Rohe-k, fotomuntaketak erabiltzen zituzten beren etxe orratzen proiektuak egiteko, benetan egiten hasi aurretik. El Lissitzky-k propaganda-irudietan proiektatzen zituen Leninek herrialdea elektrifikatzeko emandako aginduek izango zituzten ondorioak. Berdin egin zuen Rem Koolhaas-ek: Exodus lanean (1972) planteatu zuen zer ondorio izango lituzkeen Londres bitan banatzeak, jendearen bizitza baldintzatuko zukeen zerrenda handi baten bidez, Berlingo harresiarekin gertatu bezala.

«Etorkizunak interes handia pizten dit; hemendik urte batzuetara zer gertatuko den jakitea gustatuko litzaidake oraintxe bertan». Hala zioen Alexander Rodchenko-k Bigarren Mundu Gerran idatzitako egunkariko ohar batean. Normala; izan ere, garai hartan bazeuden etorkizunera begiratu nahi izateko nahikoa arrazoi. Bitarteko berriak eskura dituztela aprobetxatuz, Begia Geroaneko kideek 2068. urtearen behaketa kolektibo bat egin nahi izan dute. Beren jardura Etorkizuna Behatzeko Bulegoaren lehen esku-hartzeetako bat da. Bulego nomada horretan, etorkizunetik iristen zaigun informazioa kudeatzen dute, iraganarekin konektatuz, orainalditik erantzunak aurkitzen saiatzeko.

Donostia, 2068ko uztailearen 20a



depositphotos

depositphotos

depositphotos

**ZAINZA 23.0
MEGAKAMERAK, BIDE BABESTUAK
ETA IBILGAILU ARRAROAK
KURSALEKO ZUBIAN**

**AOPHIS ASTEROIDEAK
DONOSTIAREN KONTRA
TALKA EGIN ZUEN
UNEKO IRUDIA**



**2018KO UZTAILEKO
UDA-GAU BATEKO
AMETS IRUDIKOR BATEN
KONTAKIZUNA**

«Alkate andreak uste du hiriak baliabide turistiko gehiago behar dituela, eta Alde Zaharra Venezia bezalakoa bihurtzea erabakitzen du. Gondola-zerbitzua dago tabernetara joateko, bakoitzak nahi duenera, eta gondolariak baserritarrez jantzita doaz, euskal kantak abestuz».

Aquarium erraldoia izango da, eta Iruñera daraman teleferikoa egongo da.

**Hondartza
Iruñeraino
iritsiko da.**

Zerua etiketatuta egongo da.





**URANOTIK ETORRITAKO MILA
ERRETIRATU BAINO GEHIAGO IRITSI DIRA
HIRIRA TXAPELA XII ESPAZIO-ONTZIAN**



OLATZ, 41 URTE:

«Aberatsentzako parke tematikoa izango da; ez da autorik egongo erdialdean, jatetxeetan janari izugarri osasungarria eta garesti-garestia emango dute, erretiratu dirudenez beteko da eta gazteek ostalaritzan lan egingo dute soldata kaskarren truke».

MIKEL, 52 URTE:

«Donostia baso bat izango da, etxeak erori egingo dira eta itsasoak dena estaliko du».

NEREA, 42 URTE:

«Zoritxarrez, Donostia Amsterdam txiki bat bezala imajinatzen dut, turistaz betea».

AMAIA, 43 URTE:

«Donostian adineko jendea biziko dela imajinatzen dut. Igeldoko parke berri bat eraikiko dute eta ez da hondartzarik egongo».

FAMILIA 8,12,16 URTE:

«Oso modernoa izango da eta jolasteko makina asko egongo dira, baina nik nahiago dut frontoian pilotan jokatu. Igerileku estali asko egongo dira, itsasoa zaborrez beteta eta kutsatuta egongo baita. Eguraldi oso txarra egingo du, eta horrek arazo asko sorraraziko dizkigu».

«Eskolak ordenagailu bidez emango dira; etxetik, lasai-lasai. Baina hori arazoa izango da; izan ere, noiz eta non egongo gara lagunekin? Beti makinaren menpe, puf!»

«Makinak konpontzen eta eraikitzen lan egingo dugu».

«Erositako janaria jango dugu, janari lasterra. Baina guri ondo jatea gustatzen zaigu, hori ezagutu baitugu».

«Auto hegalaria egongo dira eta dena elektrikoa izango da. Ez da dirurik egongo; mugikorrarekin edo eskumuturrekoarekin ordainduko dugu».

«Asko aldatuko da; horregatik, orain hasi behar dugu gauza batzuei buruz pentsatzen, gerta ez daitezen».

78 URTE:

«Ez dezatela orain dugun hiria izorratu. Bertako gauza politik horrela gera daitezela, eta ez dadila hiriaren esentzia galdu».

18 ETA 19 URTEKO 2 NESKA:

«Gero eta turista gehiago etorriko dira. Milaka turista egongo dira, eta dendetan haientzako produktuak egongo dira. Ez da hemengo dendarik geratuko; denak merkataritza-gune handiak izango dira».

«Pintxoek berdin jarraituko dute, oso ezagunak direlako. Elikadurak kezkatuko gaitu eta barazki asko jango ditugu. Ikastetxeak handi-handiak izango dira, eta hori ez litzaidake gustatuko. Hezkuntzari dagokionez, bi aukera egongo dira: ikastetxe handi horietan ikastea, edo etxean. Lagunak egitea gero eta zailagoa izango da. Niri 13 urterekin oparitu zidaten mugikorra gurasoek, eta orain 8 urterekin oparitzen diete... Eta hemendik 50 urtera zer?»

«Belaunaldi bakoitzaren janaria desberdina izango da; helduek orain bezala jango dugu, eta gazteenek janari ultralasterra jango dute».


«Garraiobide guztiak elektrikoak eta oso teknologikoak izango dira. Oinez eta bizikletaz ibiltzea baloratuko da. Elite-mailako hiria izango da».

«Paco Gómezek argazki-liburuak egiten jarraituko du; *Los Modlin* beharrez, *Los Donostiarra*».

«Donostia monumentu-hiria izango da; idulki handi baten gainean egongo da, denek ikus dezaten. Herritarrak hirian biziko dira, banakako idulkien gainean jarriak, estatua bilakatuak eta mugitzeko aukerarik gabe, betirako izoztuak. Hiri osoa eta bertako biztanleak idulki handi horretan igota egongo direnez, hiriak lehen hartzen zuen lekuan hainbesteko zortetik gabeko beste hiri batzuk jarriko dira; esaterako, Iruñe zaharra edo Bilbo, zeinari Kontxa falta baitaio. Monumentu-hiri hori bisitatzeko, eskailera luze batzuk jarri beharko dira».

«Klima-aldaketaren ondorioz, Donostia hiri eguzkitsua izango da eta hirian barrena ibiltzeko hodi handi-handi bat egongo da, Futurama telesailean bezala».


«Hondartza orain bezalakoxea izatea espero dut...».



12:45:32 2068-01-01

MUNDU BIRTUALETARAKO KONEXIOAK ZERU URDINAREN AZPIAN

**EULALIA ABAITUA
ARGAZKILARIAK
IKUSTEN DENAZ
HARAGO
BEHATZEN DU**



**DONOSTIARRAK ARE ARRAROAGOAK
IZANGO DIRA: EZKATAK ETA ZAKATZAK
IZANGO DITUZTE**





NEKAZARITZA 23.0

MARRAZKI ANALOGIKOAK - DONOSTIA 2068

7-12 URTE ARTEKO HAURREK EGINAK

1.

Auto hegalariai daude, eta horietan bizi daiteke. Airean ibiltzen gara autoz, eta errepideak eta zirkulazio-arauak daude.

2.

Urrutiko kontrolak dauzkagu auto hegalariai elektrikoak gidatzeko.

3.

Asfaltoa da hiriaren jabe, eta zuhaitz erraldoiek borroka egiten dute lekua hartzeko.

4.

Lurrean lekuri ez dagoenez, nire etxea eta igerilekua airean daude, globo erraldoietatik zintzilik. Horiek babesteko, kupula erraldoi bat dago.

5.

Igeldo parke berri batean jolasten naiz. Robot erraldoiak dira nire atrakzio gustukoena. Txalupek hegan egiten dute, baita autoek ere. Olatuek itsasotik begiratzen digute.

6.

Donostiak duela 50 urteko hiriaren antza du. Baina hodeietatik, euriaz gain, txanponak eta billeteak erortzen dira lurrera.

7.

Androide metrailetadunek babesten gaituzte.

8.

Robot atsegin batek agur egiten die donostiar guztiei. Nahi duguna eska diezaiogegu, bularrean duen pantailan sakatuz, eta berak eman egiten digu.

9.

Auto eta autobus hegalariai dabilta Donostiako kaleetan, denak elektrikoak.

10.

Udaletxeak kupula eta kamera teleskopiko handi bat ditu, hiria zaintzeko. Kamioiek hegan egiten dute, eta autoek altuera har dezakete trafikoa saihesteko.

11.

Auto hegalariai bat gidatzen dut hirian zehar, airean fantasiako marrazkiak eginez. Eguzkiak distira handia egiten du.

12.


Transformer erako etxe bat daukat, igerileku eta guzti; nahi dudanean gurpilak dauzka eta nahi dudanean hegoak. Punta zorrotz ugari ditu inguruan, gu babesteko.

13.

Hiria kupula erraldoi baten barruan dago, erortzen diren meteoritoetatik babestuta egoteko. Autoak kupularen gainetik ibil daitezke hegan. Telegarraigailu zaintzadun bat dugu; beherapena dauka, denek ezin baitute ordaindu. Autoek altuera har dezakete trafikoa saihesteko. Zuhaitz erraldoiz inguratuta gaude, eta robot asko bizi dira gurekin.

14.

Hiriak zati polit bat du, eta gainerako eremu guztian zaborteziak daude. Denok etxe orratzetan bizi gara eta auto hegalariai ditugu. Gainera, ezin gara itsasoan bainatu, kutsatuta dagoelako.






All you need

is love



**SHANGHAIKO YIGUÓ QINGDIÀO PARKE TEMATIKOAK
DONOSTIAKO "KONSTIA" INAUGURATU DU EUROPA PLAZAN.
BERTAN, EUSKAL PINTXOAK ETA SAGARDOA PROBA DAITEZKE,
BAINA "EKIALDEKO UKITUAREKIN":
HIRU GUTIZIAKO BABARRUNAK, TXISTORRA
SOJA-ESNEAREKIN, KOKOTXA-BILKARIAK ETA
TXIPIROI GAZI-GOZOA, BESTEAK BESTE.**




**“ANTHEM OF THE SEA” IZENENKO MUNDUKO GURUTZAONTZI ZAHARRENAK
NORBANAKO GEOLOKALIZATUAK DESKARGATU DITU, ETA KONTXAN DABILITZA**



Donejakue bidea kostaldetik egiten duten erromesak normalean itsasoak ekartzen dituenak baino harri handiagoak ari dira aurkitzen aurten. Adinekoek diote garai batean Urumearen bokalean jarri zirenen antzekoak direla. Garbiketa-zerbitzuek laster kenduko dituztela uste da. Argazkia atzo goizeko 07:00etakoa da, eta bertan eguerdiko eguzkia saihesteko goiz mugitu diren erromesak ikus daitezke, Asteasurako sarreran.

**ERTZAINAK ARDI ELEKTRIKOEKIN
EGINGO OTE DU AMETS?**



**ELEKTROERTZAINA
(BRIGADA ADEITSUKO KOMANDANTE-BURUA)**

